

Donostia Kulturak irudi korporatibo berria aurkeztu du

Donostia Kulturak 20 urte egiten ditu eta urtebetetzea Donostia **Kulturaren Hiria** izan dadin Udal Gobernuak eginiko apustu irmoaren islarik behinena izanik ospatzen dugu. Urteak betetzen ditugu kultur eta aisialdi kontsumoaren jarraibideetan gertatzen ari den iraultza isilaren jakitun, baita krisiaren ondorioz gastu publikoaren aurrekontuak doitu behar direla jakinik ere. Horrek guztiak, baita **2016**an Europako Kultur Hiriburu bihurtzeko erronkak ere, Donostia Kulturaren paperari buruzko hausnarketa estrategikoa dakar.

Irudiaren berrantolaketa egiteko une egokia dela uste dugu. Barruko diagnosiaren ondorioz, azken urte hauetan irudia zaindu duen **Ytantos** agentzia donostiarrarekin batera, gaur ematen dugu ezagutzera marka-aterkia: donostiaKultura.com.

Marka honen trantsizioa irudiaren **birkokatzea** baino ez da, Udalak kultur alorrean jokatu nahi duen paperaren eta Informazio Gizarteak planteatzen dizkigun erronka teknologikoen ondorioz.

Ez da ustekabekoa irudi korporatibo berriak webgunera bidaltzea automatikoki, gure bizi-errealitatearen eta errealitate analogikoaren ispilu digital den sarera, hain zuzen ere. Laster lehiaketa publikoa deituko dugu benetako **kultur ataria** sortu ahal izateko; atari bat hiriko, eta inguruko, kultur jardueri buruzko informazioa jaso ahal izateko.

Aipatutako atarian Donostia Kulturaren erronka batzuk integratuko dira. **Musika** alorra adibidetzat hartuz, ondorengo programa eta sail hauek jorratuko dira:

- **Eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazio organo berria**, hiriko musika programazio eraginkorragoa bilatu nahian.
- Hiriko eszena-gune ezberdinetan, tabernak eta kafe-antzokiak batez ere, **formatu txikiko musika zirkuituaren** garapena.
- **Donostia Hiria Pop Rock Lehiaketari** bultzada berri bat ematea.
- Eremu **klasikoan, proiektu berria** lantzen ari gara Victoria Eugenia Antzokiak nortasun artistikoa izan dezan alor honetan ere.

Era berean, Europako kultur erakunde ezberdinekin ari gara **mugaz gaidiko harremanak** lantzen eta etengabeko elkarguneak ehuntzen ditugu **Tabakalerarekin** eta inguruko beste kultur agente batzuekin. Azkenik, Donostia Kultura 2016 hautagaitzaren euskarri iraunkorra da (eta izango da).

Donostia Kultura presenta su nueva imagen corporativa

Donostia Kultura cumple 20 años y los cumplimos siendo el mejor reflejo de la decidida apuesta del Gobierno Municipal por hacer de San Sebastián, una **Ciudad de la Cultura**. También los cumplimos siendo conscientes de la revolución silenciosa que se está dando en las pautas de ocio y consumo cultural así como de la necesidad de ajustar los presupuestos de gasto público, producto de la crisis económica. Todo ello, y el gran reto de alcanzar la Capitalidad Europea de la Cultura en **2016**, nos obliga a dar una pensada estratégica al papel de Donostia Kultura.

Creemos que es el momento idóneo para una **reorganización de la imagen**. Fruto de un diagnóstico interno y de la colaboración de quienes ya velaban por la marca estos últimos años, la agencia donostiarra **Ytantos**, damos hoy a conocer la nueva marca-paraguas: donostiaKultura.com.

La transición a dicha marca no es más que un **reposicionamiento** de la imagen como consecuencia del papel que quiere desempeñar el Ayuntamiento en materia cultural y de los desafíos tecnológicos que nos plantea la Sociedad de la Información.

No es casual tampoco que esta nueva imagen corporativa dirija automáticamente al sitio web, a la red que es un espejo digital de nuestra realidad analógica y vital. En breves fechas, vamos a lanzar un concurso público que nos permita contar con un auténtico **portal cultural** que reúna toda la información sobre el conjunto de la actividad cultural de la ciudad y su entorno.

En dicho portal se integrarán algunos de los nuevos retos a los que se enfrenta Donostia Kultura. Tomando como ejemplo la disciplina de **música**, se traduce en estos programas o nuevas áreas de actuación:

- Creación de un **nuevo órgano de coordinación público-privada** para una más eficiente programación musical en la ciudad.
- El desarrollo de un **circuito musical de pequeño formato** en los espacios escénicos de la ciudad, básicamente bares y cafés teatro.
- Un nuevo impulso al **Concurso Pop-Rock Ciudad de San Sebastián**.
- En el terreno más **clásico**, trabajamos en un **nuevo proyecto** que confiera orientación y personalidad artística al Teatro Victoria Eugenia también en este ámbito.

Asimismo, estamos trabajando intensamente las **relaciones transfronterizas** con diversos organismos culturales europeos y tejemos permanentemente confluencias con **Tabakalera** y otros agentes culturales del entorno. Donostia Kultura es y será, por último, soporte permanente de la candidatura 2016.